


RNA bidez, oroimena transferitu dute barraskiloetan

Oroimenari buruz dakiguna kolokan jar dezakeen esperimendua egin dute Kaliforniako Unibertsitateko neurozientzialariek, *Aplysia californica* espezieko itsas bareekin. Buztanean hainbat deskarga elektriko emanda sentibilizatu zituzten bareak. Behin sentibilizatuta, buztanean ziztada ematen zietenean, deskargak gogoratuta, beren zakatzak uzkuratzen zituzten. Itsas bare haien nerbio-sistema zentraletako RNA erauzi, eta beste itsas bare batzuetan injektatu zuten ikertzaileek. Emaitza ikusgarria izan zen: itsas bare horiek ere sentibilizatu egin ziren, deskarga elektrikoaren oroimena jaso izan balute bezala. Hortaz, ikertzaileen ustez, RNA-molekulek zerikusia izan dezakete barraskiloen defentsa-erreflexua eragiten duten oroitzapenen sorreran.



Aplysia californica itsas barea. ARG.: Genny Anderson/Wikimedia.

Orain arte pentsatu izan da epe luzeko oroimena neuronaren arteko sinapsietan gordetzen dela, eta konexio horiek ugartu eta sendotu ahala finkatzen direla oroitzapenak; [eNeuro aldizkarian](#) argitaratutako lan honek, ordea, agerian jarri du oroimenaren eredu sinaptikoa sinplegia dela. ●

Umeen leuzemia prebenigarria izan liteke neurri batean

Leuzemia linfoblastiko akutua da umeek izaten duten minbizi ohikoena. Bada, kasu asko prebeni daitezkeela iradoki dute [Nature Reviews Cancer aldizkarian argitaratu berri den ikerketa batean](#).



Leuzemia linfoblastiko akutua duten bi haur. ARG.: Bill Branson/NCI/Jabego publikoa.

Londresko Minbiziaren Ikerketako Institutuan egin dute ikerketa hori, eta, haren arabera, leuzemia linfoblastiko akutua bi pausotan sortzen da. Lehen pausoa mutazio genetiko bat da. Mutazio hori fetuan gertatzen da, eta leuzemia garatzeko arriskua eragiten du. Zehaztu dutenez, umeen % 1 jaiotzen da mutazio horrekin.

Minbizia garatzeko, beste pauso bat ere gako da: infekzio arrunt bat edo bat baino gehiago izatea, lehen urtean oso ingurune garbian eta beste umeekin kontakturik gabe egon diren kasuetan.

Ikertzaileen esanean, infekzio goiztiarrek lagundu egiten diote immunologia-sistemari behar bezala garatzen. Horrenbestez, ingurunea garbiegia bada, immunologia-sistemak akatsak izatea gerta liteke, eta horrek leuzemia garatzea ekar dezake, aurretik horretarako arrisku genetikoak duten umeetan. ●